Ordiziako Udala 2021SCO20001

ORDIZIAKO UDALERRIAN 2021-2022KO GABONETAKO ARGITERIAREN ETA APAINGARRIEN ALOKAIRU ERREGIMENEKO HORNIDURARAKO ETA ARGI ETA APAINGARRI HAUEK INSTALATU, MUNTATU, MANTENDU ETA DESMUNTATZEKO ZERBITZUEN KONTRATAZIOA ARAUTUKO DUTEN ADMINISTRAZIO-KLAUSULA PARTIKULARREN PLEGUA, PROZEDURA IREKI SUPER SINPLIFIKATUAREN BIDEZ.

LEHENENGO KLAUSULA.- ARAUBIDE JURIDIKOA

Kontratu honek administrazio-izaera du, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 25. artikuluan xedatutakoaren arabera. Lege horren bidez, 2014ko otsailaren 26ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/23 (EB) eta 2014/24 (EB) Zuzentarauen transposizioa egiten da Espainiako ordenamendu juridikora. Aldeek berariaz bete beharko dute baldintza-agiri honetan, aurkeztutako eskaintzan eta kasuan kasuko preskripzio tekniko partikularren agirian ezarritakoa. Eskaintza aurkezteak esleipendunak adostasuna adieraztea ekarriko du.

Pleguetan aurreikusita ez dagoenerako, kontratua honako hauen arabera arautuko da: SPKLren arabera, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legea partzialki garatzen duen maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretuaren arabera, urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren bidez onartutako Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Erregelamendu Orokorraren arabera, aurrekoaren aurka ez doan guztiari dagokionez, eta, modu osagarrian, Estatuko gainerako arau osagarrien arabera, eta bestela, zuzenbide pribatuko gainerako arauen arabera.

BIGARREN KLAUSULA.- ESLEITZEKO PROZEDURA.

Kontratua prozedura ireki super sinplifikatu bidez esleituko da, 2017ko SPKLren 159.6 artikuluaren arabera, eta esleitzeko irizpide automatikoak, SPKLren 145. eta 146. artikuluetan xedatutakoaren arabera.

HIRUGARREN KLAUSULA.- KONTRATUAREN XEDEA.

Baldintza-agiri honetan aipatzen den kontratuaren xedea da Ordiziako udalerriko 2021-2022 kanpainako Gabonetako argien eta apaingarrien alokairu-erregimeneko hornidura kontratatzea, baita argiak eta apaingarriak instalatzeko, muntatzeko, mantentzeko eta desmuntatzeko zerbitzuak kontratatzea ere.

Kontratu hau ez da sortatan zatitzen 2017ko SPKLren 99. artikuluaren b) apartatuan xedatutakoaren arabera.

LAUGARREN KLAUSULA.- KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA

Kontratuaren balio zenbatetsia, 2017ko SPKLren 101. artikuluan xedatutakoaren arabera, hau da: hogeita bost **HOGEITA ZORTZI MILA BEDERATZIEHUN ETA HOGEITA BOST EURO ETA HIROGEITA BI ZENTIMO (28.925,62 €), BEZik gabe.**

BOSGARREN KLAUSULA.- LIZITAZIORAKO OINARRIZKO AURREKONTUA

Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua, kontratuaren arabera kontratazio-organoak konprometitu dezakeen gastuaren gehieneko muga gisa, Balio Erantsiaren gaineko Zerga barne, **HOGEITA HAMABOST MILA EURO (35.000 €)** da, eta aurrekontu hori hobetu ahal izango dute lizitatzaileek.

Kontratuaren prezioan balorazio-faktore guztiak sartutzat hartuko dira, joan-etorriak, langileen gastuak, telefonoak eta abar barne, bai eta, kontratu-dokumentuen eta indarreko legeriaren arabera, adjudikaziodunaren kontura den beste edozein gastu ere.

SEIGARREN KLAUSULA.- KREDITUA EGOTEA.

Zenbateko hori indarrean dagoen Udal Aurrekontuko 1.22698.388.30 01242021 aurrekontu-aplikazioaren kargura ordainduko da; Udalak onartutako zenbatekora arteko nahiko kreditu izanik, eta kontratua finantzatzeko aukera ematen duten ekarpenen erabateko erabilgarritasuna egiaztatuta geratzen da.

ZAZPIGARREN KLAUSULA.- EXEKUZIO EPEA.

Argiztapen-aldia 2021eko abenduaren 17tik 2022ko urtarrilaren 6ra artekoa izango da, biak barne, eta lizitazio honen xede diren argiztapen- eta apainketa-elementu guztiak abenduaren 14rako jarrita egon beharko dira. Enpresak pizte-proba bat egin beharko du abenduaren 15ean, instalazioek behar bezala funtzionatzen dutela egiaztatzeko. 2022ko urtarrilaren 7an itzaliko dira, eta 2022ko urtarrilaren 15ean desmuntatuko dira instalatutako argiak, apaingarriak eta ekipoak. Egun horretan amaituko da lana.

ZORTZIGARREN KLAUSULA.- KONTRATAZIO ORGANOA

Kontratazio-organoa Alkatetza izango da, 2017ko Sektore Publikoko Kontratuen Legearen bigarren xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera. Organo horrek prerrogatibak ditu kontratua interpretatzeko, kontratua betetzean sortzen diren zalantzak ebazteko, interes publikoko arrazoiengatik kontratua aldatzeko, kontratua suntsiaraztea erabakitzeko eta suntsiaraztearen ondorioak zehazteko, aplikatzekoa den prestakuntza-alderdiari lotuta.

BEDERATZIGARREN KLAUSULA.- KONTRATATZAILEAREN PROFILA.

SPKLren 63. artikuluaren arabera, eta toki-erakunde honen kontratu-jarduerari buruzko informazioaren gardentasuna eta sarbide publikoa ziurtatzeko, haren kontratatzailearen profilaren bidez ematen da kontratu honi buruzko informazio guztia.
Profilean, kontratazio-organoarekin harremanetan jartzeko behar den informazio orokorra ez ezik, harremanetarako puntuak, telefono- eta fax-zenbakia, posta-helbidea eta helbide elektronikoa, dokumentu orokorrak eta ereduak ere sartzen dira.

Kontratatzailearen profilean sartzeko helbidea: www.ordizia.eus.

LIZITAZIOA ETA ESLEIPENA

HAMARGARREN KLAUSULA. GAITASUNA.

Jarduteko gaitasun osoa duten Espainiako edo atzerriko pertsona natural edo juridikoek soilik kontratatu ahal izango dute sektore publikoarekin, betiere 2017ko SPKLren 71. artikuluan adierazitako kontratatzeko debekuren baten eraginpean ez badaude.

Kontratistek kontratuaren helbururako lagungarriak diren prestazioak egiteko eska daitekeen enpresa- edo lanbide-gaikuntza eduki beharko dute.

Pertsona juridikoak beren estatutuen edo sorrerako arauen arabera berezko dituzten helburuen, xedearen edo jarduera-eremuaren barruko prestazioak dituzten kontratuen esleipendun baino ezin izango dira izan.

Europar Batasuneko edo Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Akordioa sinatu duten estatuetako enpresei eta Europar Batasuneko enpresei dagokienez, 2017ko SPKLren 67. eta 68. artikuluetan xedatutakoa beteko da.

Sektore publikoarekin kontratatu ahal izango dute aldi baterako horretarako eratzen diren enpresaburu-elkarteek, Kontratazio M ahaiaren ahalmenei kalterik egin gabe kolusio-zantzuak daudenean, 2017ko SPKLren 69. artikuluaren arabera, eta ez da beharrezkoa izango horiek eskritura publikoan formalizatzea kontratua haien alde adjudikatu arte.

Aldi baterako elkarteetan elkartuta lehiatzen diren enpresaburuak solidarioki behartuta geratuko dira, eta elkarteko ordezkari edo ahaldun bakar bat izendatu beharko dute, kontratutik eratorritako eskubideak baliatzeko eta betebeharrak betetzeko ahalorde askietsiak izango dituena, harik eta kontratua azkendu arte, hargatik eragotzi gabe zenbateko esanguratsua kobratzeko eta ordaintzeko ahalorde mankomunatuak eman ahal izatea.

Aldi baterako enpresa-elkarte batean parte hartu nahi duten enpresaburuek elkartea osatzen dutenen izenak eta inguruabarrak adierazi beharko dituzte, baita bakoitzaren partaidetza ere, eta kontratuaren esleipendun izanez gero, aldi baterako enpresa-elkartea formalki eratzeko konpromisoa hartzen dutela adierazi beharko dute. Aldi baterako enpresa-elkarteek, gutxienez, kontratua amaitu arte iraungo dute.

Toki-erakundeko kontratazio-organo eskudunak neurri egokiak hartuko ditu, aldez aurretik zehaztasun teknikoak edo kontratua prestatzeko dokumentuak egiten parte hartu duten enpresek edo kontratazio-prozedura prestatzean kontratazio-organoari aholkularitza eman dioten enpresek lizitazioan parte hartzeak lehia faltsutzen ez duela bermatzeko. Neurri horien artean ezarri ahal izango da aipatutako enpresak, eta horiekin lotutako enpresak, baztertu ahal izatea, tratu-berdintasunaren printzipioa betetzen dela bermatzeko beste biderik ez dagoenean.

HAMAIKAGARREN KLAUSULA.- SEKTORE PUBLIKOKO LIZITATZAILEEN ETA ENPRESA SAILKATUEN ERREGISTRO OFIZIALEAN IZENA EMATEA.

Prozedura super sinplifikatu bidez egindako lizitazioetara aurkezten diren lizitatzaile guztiek Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean inskribatuta egon beharko dute eskaintzak aurkezteko azken egunean, edo, hala dagokionean, dagokion autonomia-erkidegoko erregistro ofizialean,

betiere lehia mugatzen ez bada, azaroaren 8ko 9/2017 Legearen hirugarren xedapen iragankorrean xedatutakoari kalterik egin gabe.
Betebehar horrek, SPKLren 159,6 c) artikuluaren arabera, lizitatzaileak ekonomia- eta finantza-kaudimena eta kaudimen tekniko edo profesionala egiaztatzetik salbuesten ditu.

HAMABIGARREN KLAUSULA.- ESLEITZEKO IRIZPIDEAK

159.6 artikuluak xedatzen du eskaintza, nolanahi ere, formula objektiboak aplikatuz kuantifika daitezkeen esleipen-irizpideen arabera ebaluatuko dela.
Hauek dira kontratua esleitzeko oinarritzat hartuko diren irizpideak:

- Prezioa: 60 puntu: Eskaintzarik merkeenari 60 puntu emango zaizkio. Prezioak banakatuta aurkezten ez badira, aurkeztutako eskaintza BAZTERTU egingo da. Formula hau aplikatuko da:

$$P = 60 - N$$

$$N = \frac{oferta\ analizada - oferta\ más\ económica}{media\ de\ las\ ofertas} \times 100$$

- Hobekuntzak: 20 puntu

  - 1.000 euro arteko hobekuntzak: 5 puntu.
  - 1.000 eurotik gorako hobekuntzak eta 2.000 eurora arte: 10 puntu.
  - 2.000 eurotik gorako hobekuntzak eta 3.000 eurora arte: 15 puntu.
  - 3.000 eurotik gorako hobekuntzzak: 20 puntu.

- Pleguetan ezarritako epea murriztea: 20 puntu.

  - Astebete lehenago (Argia bide publikoan, beranduenez, 2021eko abenduaren 8an jartzea): 10 puntu.
  - 2 aste lehenago (Argia bide publikoan, beranduenez, 2021eko abenduaren 1ean jartzea) : 20 puntu.

HAMAHIRUGARREN KLAUSULA.- PROPOSAMENAK AURKEZTEA.

Interesdunen proposamenek bat etorri beharko dute lizitazioa arautzen duten baldintza-agiriekin eta dokumentazioarekin, eta horiek aurkezteak berekin dakar enpresaburuak baldintzarik gabe onartzea klausula edo baldintza guztien edukia, salbuespenik edo erreserbarik gabe, bai eta mahaiari eta kontratazio-organoari baimena ematea Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean edo Europar Batasuneko estatu kide bateko operadore ekonomikoen zerrenda ofizialetan jasotako datuak kontsultatzeko.

Proposamenak isilpekoak izango dira, eta proposamenak irekitzen diren unera arte isilpekoak izango direla bermatzeko bitartekoak jarriko dira.

Lizitatzaile bakoitzak proposamen bat baino ezingo du aurkeztu.

Proposamenean, partida independente gisa, eragina izango duen Balio Erantsiaren gaineko Zergaren zenbatekoa adierazi beharko da.

PLEGUAK ETA DOKUMENTAZIO OSAGARRIA ESKURATZEA.

Toki-erakunde honek kontratatzailearen profilaren bidez eskainiko du baldintza-agirietarako eta gainerako dokumentazio osagarrirako sarbidea, bitarteko elektronikoen bidez. Sarbide hori librea, zuzena, osoa eta doakoa izango da, eta lizitazio-iragarkia argitaratzen den egunetik aurrera gauzatuko da.

2017ko SPKLren 159.2 artikuluan adierazitakoaren arabera, eskaintza aurkezteko behar den dokumentazio guztia bitarteko elektronikoen bidez egongo da eskuragarri, iragarkia kontratatzailearen profilean argitaratzen den egunetik aurrera.

TOKIA ETA EPEA.

Proposamenak Kontratazio Elektronikoaren Erregistro Telematikoan aurkeztuko dira, www.kontratazioa.euskadi.eus helbidearen bidez, edo zuzenago: https://www.euskadi.net/lizitazioa.

- Lizitazio elektronikoari buruzko zalantzak edo gorabeherak argitzeko laguntza-zerbitzua: 945016298 TELEFONOA (Eusko Jaurlaritzaren Kontratazio Zerbitzuaren CAU)

Proposamenak aurkezteko epea hamar egun baliodunekoa izango da, kontratuaren lizitazio-iragarkia 2017ko SPKLren 159. artikuluaren arabera kontratatzailearen profilean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

- **KONFIDENTZIALTASUNA**

2017ko SPKLren 133. artikuluaren arabera, toki-erakundeak ez du zabalduko eskaintza aurkezteko unean enpresaburuek konfidentzialtzat jo duten informazioa.
Isilpeko izaerak, besteak beste, honako hauei eragiten die: sekretu tekniko edo komertzialei, eskaintzen alderdi konfidentzialei eta lehia faltsutzeko erabil daitekeen edukia duen beste edozein informaziori, bai lizitazio-prozedura horretan, bai ondorengo batzuetan.
Konfidentzialtasun-betebeharrak ezingo du eragotzi egindako kontratuen alderdi ez-konfidentzialen zabalkunde publikoa, betiere Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan xedatutakoa errespetatuz.

HAMALAUGARREN KLAUSULA.- PROPOSAMENEN EDUKIA

2017ko Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 159.6.c) artikuluan xedatutakoaren arabera eta *Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen* urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14. artikuluarekin lotuta, lizitatzaileek artxibo elektroniko bakar batean aurkeztu beharko dute proposamena.

Artxibo elektronikoa lizitatzaileak edo hura ordezkatzen duen pertsonak sinatuta aurkeztuko da, eta izenburu hau izango du: "ORDIZIAKO GABONETAKO ARGIAK ETA APAINGARRIAK ALOKATZEKO, INSTALATZEKO, MUNTATZEKO, DESMUNTATZEKO ETA MANTENTZEKO ETA ALOKAIRU ERREGIMENEAN ARGIEN ETA APAINGARRIEN HORNIDURA KONTRATAZIOAN PROZEDURA IREKI SUPER SINPLIFIKATUAREN BIDEZKOAN PARTE HARTZEKO PROPOSAMENA." Eta bertan jasoko da edukia eta lizitatzailearen izena. Artxiboan, aparteko orri batean adieraziko da edukia, zenbakiz ordenatuta.

Kontratazio-organoak edo -mahaiak lizitatzaileei eskatu ahal izango die justifikazio-dokumentu guztiak edo batzuk aurkezteko, baldin eta uste badu arrazoizko zalantzak daudela deklarazioen indarraldiari edo fidagarritasunari buruz, edo prozedura behar bezala garatzeko beharrezkoa bada.

ARTXIBO ELEKTRONIKO BAKARRAREN EDUKIA:

Artxibo elektronikoak erantzukizunpeko adierazpen bat izango du, Europako kontratazio-agiri bakarraren inprimakiari egokituko zaiona. Adierazpen horrek sinatuta egon beharko du eta dagokion identifikazioarekin, eta lizitatzaileak honako hau adierazi beharko du 2017ko SPKLren 159.4.c) artikuluaren arabera:

- Sinatzailea da eskaintza aurkezten duen sozietatearen ordezkaria.

- Jarduera egiteko behar diren baimenak ditu

- Ez dauka kontratatzeko debekurik.

- Enpresa atzerritarra bada, Espainiako foruaren mende egongo da.

- Eskaintza aldi baterako enpresa-elkarte batek aurkezten badu, elkartea eratzeko konpromisoa aurkeztu beharko da.

Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean inskribatzeak inskribatutako lizitatzaileak salbuetsita utziko ditu kontratazio-deialdietan enpresaburuaren gaitasun-baldintzak aurkeztetik, erregistro horretan jasotakoaren arabera eta kontrakorik frogatu ezean.

- Hurrengo ataletan ezartzen den hasierako administrazio-dokumentazioaren ordez, I. ERANSKINAren araberako erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu ahal izango da.

SPKLren 139.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, proposamenak aurkezteak berekin dakar kontratazio-organoari eta mahaiari baimena ematea Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean jasotako datuak kontsultatzeko.

Gaitasunari, kaudimenari eta kontratatzeko debekurik ezari buruzko inguruabarrak, aurreko zenbakietan aipatutakoak, eskaintzak aurkezteko azken egunean bete beharko dira, eta kontratua perfekzionatzeko unean iraungo dute.

Artxibo elektronikoan, **banakatutako eskaintza ekonomikoa** eta formulen bidez ebaluatzekoak diren irizpideei buruzko gainerako dokumentazioa sartuko dira.

Eskaintza ekonomikoa eta formula bidez ebaluatu daitezkeen irizpideak klausula-orri hauen III. eta IV. ERANSKINETAN jasotako ereduaren araberakoak izango dira.

Eskaintza ekonomikoa argi eta garbi idatzita aurkeztuko da eta kanpoan geratuko dira omisioak, akatsak edo zirrimarrak dituztenak, baldin eta horien ondorioz ezin bada jakin, argi eta garbi, toki-erakundeak eskaintza aintzat hartzeko funtsezkotzat jotzen duena.

HAMABOSGARREN KLAUSULA.- KONTRATAZIO MAHAIA:

SPKLren 326. artikuluaren arabera, **ez da kontratazio-mahairik eratuko, aukerakoa baita**. Kontratazio-organoak gailu elektroniko baten bidez irekiko ditu artxibo elektronikoak, proposamenak aurkezteko epea amaitu arte ez direla irekiko bermatzeko.

.**HAMASEIGARREN KLAUSULA.- PROPOSAMENEN AZTERKETA ETA ESLEITZEKO PROPOSAMENA**

Prozedura laburtu super sinplifikatuan ez da aurreikusten irekiera-egintza publikorik, baina nahikoa da ziurtatzea proposamenak ez direla irekiko aurkezteko epea amaitu arte. Hala eta guztiz ere, kontratu horretarako, kontratazio-organoak, 2017ko SPKLren 159.4 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, artxibo elektronikoak irekitzea xedatuko du, proposamena dagokion hurrenkeran jasota, SPKLren 146. artikuluan adjudikatzeko ezarritako irizpideen arabera, 2017ko metodoaren arabera balioesteko.

Eskaintza pleguetan ezarritako irizpide kuantifikagarrien bidez ebaluatuko da.

Kontratazio-organoak honako hauek egingo ditu:

1. Baldintza-agiriko eskakizunak betetzen ez dituzten eskaintzak baztertu egingo dira, hala badagokio, eta eskaintzak ebaluatu eta sailkatu egingo dira.

2. Puntu gehien dituen hautagaiaren aldeko esleipen-proposamena egitea.

3. Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean egiaztatzea enpresa behar bezala eratuta dagoela, proposamenaren sinatzaileak eskaintza egiteko ahalmen nahikoa duela, eta ez duela kontratatzeko inolako debekurik. (Kontuan hartu behar da azaroaren 8ko 9/2017 SPKLren hirugarren xedapen iragankorrean enpresa Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean inskribatzeari buruz xedatutakoa).

2017ko SPKLren hamabosgarren xedapen gehigarriaren arabera, jakinarazpenak helbide elektroniko gaitu bidez edo agerraldi elektroniko bidez egin ahal izango dira. Jakinarazpena egiten denetik aurrera zenbatuko dira epeak, jakinarazpena edo, agerraldi elektronikoaren bidez egin bada, jakinarazpen-abisua bidaltzen den egunetik aurrera, baldin eta jakinarazpenaren xede den egintza egun horretan bertan argitaratu bada kontratazio-organoaren kontratatzailearen profilean. Bestela, interesdunak jakinarazpena jasotzen duenetik aurrera zenbatuko dira epeak.

Jakinarazpen elektronikoa ukatutzat jotzeko epea, 39/2015 Legearen 41.5 artikuluan aurreikusitako ondorioekin, hamar egun naturalekoa izango da, interesduna haren edukira sartu gabe haren eskura jarri dela jakiten denetik zenbatzen hasita, salbu eta ofizioz edo hartzaileak eskatuta hura eskuratzea teknikoki edo materialki ezinezkoa dela egiaztatzen bada.

HAMAZAZPIGARREN KLAUSULA.- ESKAINTZA BAXU EZOHIKOAK

2017ko SPKLren 159.4.f) artikuluaren arabera, puntuaziorik onena lortu duen lizitatzailearen eskaintza baxu ezohikotzat jotzen denean, puntuazio onena lortu duen hautagaiaren aldeko esleipen-proposamena egin aurretik, 2017ko SPKLren 149. artikuluan aurreikusitako prozedura izapidetu beharko du. Prozedura horretan, dagokion zerbitzuaren aholkularitza teknikoa eskatuko da, baina dagokion eskaintza justifikatzeko gehieneko epea, 5 egun baliodunekoa, ezingo du gainditu lizitatzaileak..

Kontratu honetarako, lizitatzaileak aurkeztutako eskaintza ausartegitzat jotzen da prezioa lizitazioaren oinarrizko prezioa baino %20 txikiagoa denean.

Nolanahi ere, ulertuko da lizitatzaileak aurkeztutako eskaintzaren justifikazioak ez duela behar bezala azaltzen lizitatzaileak proposatutako prezio edo kostuen maila baxua, hura osatugabea denean edo ikuspuntu tekniko, juridiko edo ekonomikotik desegokiak diren hipotesi edo jardunbideetan oinarritzen denean.

Anormaltasunaren presuntzioan dagoen enpresa kontratuaren esleipenduna izan bada, kontratazio-organoak kontratua behar bezala gauzatzen dela zainduko du, kontratatutako zerbitzu, obra edo horniduren kalitatea murriztu gabe.

HAMAZORTZIGARREN KLAUSULA.- ESLEIPENAREN AURRETIK DOKUMENTAZIOA AURKEZTEA.

Lizitatzaileak beste erakunde batzuen ahalmenetara jo nahi badu, erakunde horien idatzizko konpromisoa, behar diren baliabideak izango dituela eta 2017ko SPKLren 76.2 artikuluaren arabera kontratua gauzatzeko hitzemandako bitartekoak benetan dituela egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztuko du, eta hori guztia 7 egun balioduneko epean, jakinarazpena bidaltzen denetik zenbatzen hasita.

HEMERETZIGARREN KLAUSULA.- BEHIN BETIKO BERMEA

Ez da eskatuko behin betiko bermea eratzea.

HOGEIGARREN KLAUSULA.- KONTRATUAREN ESLEIPENA.

Esleipenaren ebazpen arrazoitua lizitatzaileei jakinaraziko zaie, eta kontratatzailearen profilean argitaratu beharko da 15 eguneko epean.

Jakinarazpenean eta publizitatean, esleipen-prozeduran interesa dutenek esleipen-erabakiaren aurka behar adina funtsatutako errekurtsoa jarri ahal izateko behar den informazioa jaso beharko da, eta, nolanahi ere, honako hau jaso beharko da, besteak beste:

- Esleipen-prozeduratik kanpo utzitako lizitatzaileei dagokienez, eskaintza ez onartzeko arrazoiak, ez baliokidetzeko erabakiaren arrazoiak edo obrak errendimendu-eskakizunetara edo eskakizun funtzionaletara egokitzen ez direlako erabakiaren arrazoiak; eta lizitatzaileei esleitutako balorazioen banakapena, esleipenduna barne.

- Nolanahi ere, esleipendunaren izena, eta esleipendunaren proposamenaren ezaugarri eta abantailak, onarturiko gainerako lizitatzaileek aurkeztutakoen aldean esleipendunaren eskaintza hautatzeko erabakigarriak direnak.

Jakinarazpena bitarteko elektronikoen bidez egingo da, 2017ko SPKLren hamabosgarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera.

HOGEITA BATGARREN KLAUSULA.- KONTRATUA FORMALIZATZEA.

Kontratistak esleipen-ebazpenaren onarpena sinatuz formalizatu ahal izango da kontratua.

Kontratua, gehienez ere, lizitatzaileei eta hautagaiei adjudikazioa jakinarazi eta hurrengo hamabost egun baliodunen barruan formalizatu beharko da.

Adjudikaziodunari egotz dakizkiokeen arrazoiak direla-eta, kontratua formalizatu ez bada edo kontratistak ez badu adjudikazio-ebazpena epe horren barruan onartu, lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren % 3 eskatuko zaio, BEZik gabe, zigor gisa. Zenbateko hori, behin betiko bermearen aurka ordainduko da, eratu bada, hargatik eragotzi gabe kontratatzeko debeku-arrazoitzat jotzea (2017ko SPKLren 149. artikulua).

Kasu horretan, kontratua hurrengo lizitatzaileari esleituko zaio, eskaintzak sailkatuta geratu diren hurrenkeraren arabera, aldez aurreko betekizunak betetzen dituela egiaztatzen duten agiriak lehen adierazitako epeetan aurkeztu ondoren.
Ezin izango da kontratua exekutatu formalizatu aurretik kontratistak onarpena sinatu badu.

HOGEITA BIGARREN KLAUSULA.- KONTRATUAREN ZENBATEKOAREN ORDAINKETA.

Toki-erakundeak obra-amaierako ziurtagiria onartu eta hogeita hamar eguneko epean ordaindu beharko du zenbatekoa, baldin eta dagokion faktura elektronikoa epe eta modu egokian aurkeztu badu.

Aurkeztutako fakturak eska daitekeen betekizunen bat betetzen ez duela ikusten bada, zuzentzeko eskatuko da, eta adierazitako epea ez da zenbatzen hasiko zuzendu arte.

HOGEITA HIRUGARREN KLAUSULA.- PREZIOEN BERRIKUSKETA.

Kontratu honetan ez da prezioen berrikusketarik egokitzen.

HOGEITA LAUGARREN KLAUSULA.- EXEKUZIOKO BALDINTZA BEREZIAK.

- <u>Izaera sozialeko klausulak</u>

Esleipendunak, kontratua gauzatuko duten langileei dagokienez, lan-arloan, Gizarte Segurantzaren arloan eta laneko segurtasun eta osasunaren arloan indarrean dauden lege-, erregelamendu- eta hitzarmen-xedapenak betetzeaz gain, erreferentziazko sektoreko hitzarmen kolektiboa ere bete beharko du, langileen subrogazioari dagokionez hitzarmen horretan ezartzen diren baldintzak errespetatuz,

eta, betiere, langileari dagokion lanbide-kategoriaren arabera hitzarmenean jasotzen den soldata gutxienez ordainduz.

Kontratua gauzatzeko baldintza berezi honen bidez, kontratua gauzatzera atxikitako langileen lan-baldintzak, eta bereziki soldatakoak, duinak direla bermatu nahi da.

- Ingurumen izaerako klausulak:

Esleipendunak kontratua gauzatu bitartean sortutako hondakinen gaikako bilketa egin beharko du. Halaber, enbalajeak eta ontzi hutsak kendu beharko ditu, dagozkien edukiontzietan uzteko, edo, hala badagokio, garbigunean edo hondakinak kudeatzeko beste sistema baimendu batean.

Kontratuaren xedearekin duen lotura justifikatzen da, 145.6 artikuluari dagokionez SPKLren 202.1 artikulua, kontratuaren xedearen arabera hornitutako materialaren bizi-zikloarekin lotutako prestazioak aipatzen edo integratzen dituenean.

HOGEITA BOSGARREN KLAUSULA.- AZPIKONTRATAZIOA.

Ez da aukera hori ezartzen.

HOGEITA SEIGARREN KLAUSULA.- ZIGORRAK KONTRATU-BETEBEHARRAK EZ BETETZEAGATIK.

Kontratuaren xede den prestazioa behar bezala betetzen ez bada, kontratua gauzatzeko behar diren giza baliabideak edo baliabide materialak jartzeko konpromisoa betetzen ez bada, edo 2017ko SPKLren 76. artikuluaren 2. atalaren eta 2017ko SPKLren 202. artikuluaren 1. atalaren arabera kontratua gauzatzeko ezarri diren baldintza bereziak betetzen ez badira, zigorrak ezarriko dira.

Baldin eta kontratista, berari egotz dakizkiokeen arrazoiak direla-eta, guztizko epea betetzeko orduan berandutze-egoeran jarri bada, toki-erakundeak, kasuaren inguruabarrak kontuan hartuta, bi aukera izango ditu: kontratua suntsiarazi, edo eguneko zigorrak ezarri, kontratuaren prezioaren 1.000 euro bakoitzeko 0,60 euroko proportzioan, BEZik gabe.

Berandutzeagatiko zigorrak kontratuaren prezioaren 100eko 5eko multiplo batera iristen diren bakoitzean, BEZik gabe, kontratazio-organoak ahalmena izango du, edo kontratua suntsiarazteko, edo, zigor berriak ezarrita, kontratua gauzatzen jarraitzea erabakitzeko.

Ez-betetze partziala edo betetze akastuna gertatuz gero, edo kontratua gauzatzen berandutuz gero, eta zigorrik aurreikusita ez badago, edo, ezarrita egon arren, toki-erakundeari eragindako kalteak estaltzen ez baditu, kalte-galeren ordaina eskatuko dio toki-erakundeak kontratistari.

HOGEITA ZAZPIGARREN KLAUSULA.- BETEBEHARRAK, KONTRATISTARI ESKA DAKIZKIOKEEN GASTUAK.

Kontratuaren eskritura publikoa eginez gero, kontratistaren kontura izango dira kontratua formalizatzeko gastuak, bai eta toki-erakunde honen mende ez dauden eta kontratuaren xede diren obrak behar bezala egiteko egokiak diren lizentzia eta baimen guztiak ere.

Era berean, enpresak kontratua betetzeko egin behar dituen gastu guztiak ordaindu beharko ditu, hala nola gastu orokorrak, finantza-gastuak, aseguruenak, garraio eta joan-etorrienak, materialenak, instalazioenak, bere kargura dauden langileen ordainsariak, egiaztapenenak eta saiakuntzenak, tasenak eta era guztietako zergenak, BEZarenak, jarduera egiteagatik legokiokeen zergarenak eta kontratua indarrean dagoen bitartean kontratua gauzatzearen ondorioz sor litezkeen beste guztiak, eta, beraz, gastu horiek ezingo dira partida independente gisa jasanarazi.

HOGEITA ZORTZIGARREN KLAUSULA.- KONTRATUAREN EXEKUZIOA.

Kontratuaren oinarri diren administrazio-klausula zehatzen agirian eta klausula teknikoen agirian jasotako xedapenei estu-estu lotuta egingo da kontratua, eta Ordiziako Udaleko zerbitzuak sailak kontratistari interpretazio teknikoa eginez emandako jarraibideen arabera.
Kontratua garatzen den bitartean, kontratista izango da ikusten diren akats guztien erantzulea.

HOGEITA BEDERATZIGARREN KLAUSULA.- KONTRATISTAREN ERANTZUKIZUNA KALTE-GALERENGATIK

Kontratistaren betebeharra izango da kontratua gauzatzeko egin beharrekoen ondorioz hirugarrenei eragindako kalte eta galera guztien kalte-ordaina ematea.

HOGEITA HAMARGARREN KLAUSULA.- KONTRATUA ALDATZEA.

Kontratazio-organoek egindako administrazio-kontratuak indarrean dauden bitartean, SPKLren 203. artikuluaren 2. apartatuan ezarritako kasuetako bat gertatzen denean soilik aldatu ahal izango dira.

SPKLren 206. artikuluan ezarritakoaren arabera erabakitzen diren kontratu-aldaketak nahitaezkoak izango dira kontratistarentzat. Aldaketak unitateak ezabatzea edo murriztea badakar, kontratistak ez du kalte-ordainik eskatzeko eskubiderik izango.

Baldintza-agiri honetan aurreikusi gabeko aldaketei dagokienez, 2017ko SPKLren 205. artikuluan adierazitakoa bete beharko da. Kasu horietan, kontratazio-organoak erabakitako aldaketak nahitaezkoak izango dira kontratistentzat, baldin eta, banaka edo batera, aldaketa horien zenbatekoa kontratuaren hasierako prezioaren ehuneko 20tik gorakoa ez bada, BEZik gabe.

Aurreikusi gabeko aldaketa bat justifika dezaketen kasuak, betiere 2017ko SPKLren 205. artikuluaren lehen apartatuan jasotako baldintza guztiak betetzen baditu, honako hauek dira:

- Hasieran kontratatutakoez gain beste hornidura edo zerbitzu batzuk gehitu behar badira, betiere honako bi baldintza hauek betetzen badira:

- Indarrean dagoen kontratu bat aldatzeko beharra bat-batean gertatutako inguruabarren ondorio denean eta kontratuaren lizitazioa egin zen unean aurreikusi ezin zitezkeenean.

HOGEITA HAMAIKAGARREN KLAUSULA.- BERME-EPEA.

Ez da ezarri.

HOGEITA HAMABIGARREN KLAUSULA.- ADMINISTRAZIOAREN ETA AUZITEGIEN ESKUMENAK.

2017ko SPKLn adierazitako mugen barruan eta bertan adierazitako betekizunei eta ondorioei lotuta, kontratazio-organoak prerrogatiba dauka administrazio-kontratuak interpretatzeko, kontratuok betetzean sortzen diren zalantzak ebazteko, interes publikoko arrazoiengatik kontratuak aldatzeko, kontratua gauzatzearen ondorioz kontratistari egotz dakiokeen erantzukizuna deklaratzeko, kontratuaren exekuzioa eteteko, kontratua suntsiaraztea erabakitzeko eta horren ondorioak zehazteko.

Aipatutako prerrogatibei buruzko erabakiak hartzeko bideratzen diren prozeduretan, entzunaldia eman beharko zaio kontratistari.

Kontratua interpretatzean, aldatzean eta suntsiaraztean sortzen diren auziak, eta horren ondorioak, kontratazio-organoak ebatziko ditu. Kontratazio-organoak hartutako erabakiek administrazio-bidea amaituko dute, eta berehala betearazi beharrekoak izango dira. Hala ere, aukerako berraztertzeko errekurtsoa jar dakioke eman zuen organoari berari, edo, bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke haren aurka, jurisdikzio hori arautzen duen legean xedatutakoaren arabera.

Administrazio-klausula zehatzen agiri hau eta espedienteari lotutako gainerako agiri teknikoak bat ez badatoz, agiri honetan xedatutakoa nagusituko da

Ordiziako Udala 2021SCO20001

I. ERANSKINA

ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA

……jaun/andrea, ……NAN duena, bere izenean edo honakoaren ordezkaritzan (lizitatzailea)……, ……IFZ duena

…… Zenbakidun espedienteko kontratua esleitzeko prozedurari dagokionez,

ADIERAZTEN DU:

1.- Erantzukizunpeko adierazpen hau sinatzen duenak eskaintza aurkezten duen pertsonaren, erakundearen edo enpresaren ordezkaritza duela.

2.- Aipatutako pertsona, erakunde edo enpresak egunean dituela indarreko xedapenek ezarritako zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak.

3.- Adierazitako pertsona, erakunde edo enpresa EJZn alta emanda dagoela, kontratuaren xedeari dagokion epigrafean.

4.- Ordezkatzen duen pertsonak, erakundeak edo enpresak, horiek administratzeko eta ordezkatzeko ahalmena dutenek, sinatzen duenak eta, hala badagokio, zuzentzen dituzten pertsonak edo bestelako zirkunstantziak direla-eta pentsa daitekeen beste enpresa batzuen jarraipena edo ondorengoa direla, eraldatze, bategite edo ondorengotza bidez, haiek parte hartu duten enpresak, eta ez daude Sektore Publikoko 2017ko azaroko 9. artikuluan adierazitako kontratatzeko debekuetako eta bateraezintasunetako batean ere.

5.- Beste erakunde batzuen ahalmenetara jotzen badu, beharrezko baliabideak izango dituela frogatuko duela, erakunde horien idatzizko konpromisoa aurkeztuz, kontratazio-organoak hala eskatuta.

6.- Atzerriko operadore ekonomikoa bada eta kontratua Espainian betearaziko bada, adierazten du Espainiako maila guztietako epaitegi eta auzitegien jurisdikzioaren mende jartzen dela kontratutik zuzenean nahiz zeharka sortutako gorabehera guztietarako, eta, hala balegokio, uko egiten diola operadore ekonomikoari legokiokeen atzerriko jurisdikzio-foruari.

……n, 20….ko ……ren ……..(e)an

Sinatua:

Kontratua esleitzeko eskatzen diren baldintza eta betekizunen jakitun izanik, kontratua gauzatzeko ardura hartuko du bere gain, adierazitako betekizun eta baldintzei hertsiki lotuta, eta honako zenbateko(1) hau izango du:

Oinarrizko zenbatekoa	BEZ zenbatekoa	Guztira zenbatekoa

Eskainitako motiboen unitate-prezioen taula: aipatutako atalen barruan eskainitako motibo adina unitate-prezio ezarriko dira (farola, arkua, eszenografia, etab.), prezio globala eskainitako unitate-prezioari eskainitako motibo-kopuruaren batura izan dadin **(unitate-prezioen banakapena aurkeztu beharko da nahitaez; bestela, proposamena baztertu egingo da).**

(data, enpresaren zigilua eta baimendutako sinadura)

II. ERANSKINA.

EZINBESTEKO BALDINTZAK BETETZEAREN ADIERAZPENA

Baldintza teknikoen pleguetan ezarritako betekizun guztiak erantsi behar dira. Bestela, proposamena baztertu egingo da. X batez markatu proposamenean gutxienez aurkezten diren dokumentuak:

• Planoa eta fotomuntaia, Gabonetako argiztapen- eta apainketa-proposamenak ikusteko aukera emango duena.

• Zuhaitzak argiztatzeko eta apaintzeko proposamena.

• Planoan adierazitako espazioetako bakoitzean jarri beharreko modeloak, koloreak, materialak eta elementuak, berariaz adieraziz espazio horietako bakoitzean apaindu beharreko hiri-altzarien objektuak: zuhaitzak, farolak, kaleak, etab.

• LED edo mikro-lanpara edo kontsumo txikiko lanparak erabiliko dituzten elementuak eta koloreak proposatzea.

• Argiteria-, apaindura- eta argi-elementuen plana, unitate eta espazio bakoitzeko kontsumoak, eta proposatutako LED motako lanpara edo mikrolanpara edo kontsumo txikiko lanpara kopurua zehaztuta, apaindu beharreko elementu bakoitzeko.

• Apainketa-argiztapeneko elementuen ezaugarri teknikoak: potentzia wattetan eta material motatan, elementu apaingarriak ainguratzeko eta eusteko sistemak berariaz adierazita.

• Egutegi-laneko plana, honako hauek jasoko dituena: materialak instalatzeko, muntatzeko eta desmuntatzeko plana, honako hauek zehaztuta: instalazioko kronograma eta kale-izendegia, horien sekuentzia eta ordutegia, ibilgailuak, langileak eta orduak/eguneko, kontratua betetzeko beharrezko baimenak, eta ainguratze- eta euste-sistemak. Era berean, alokatu beharreko elementuen eta materialen zerrenda eta ezaugarri teknikoak jasoko ditu: potentzia wattetan eta material motak. Muntaketa eta desmuntaketa horiek pertsonen eta ibilgailuen trafikoari ahalik eta gutxien eragiteko moduan egingo dira.

• Zerbitzuaren mantentze-plana, mantentze-lanez, metodologiaz eta garapenaz arduratuko diren pertsonak adieraziz, preskripzio teknikoen pleguan aurreikusitakoaren arabera. Plan horrek honako hauek zehaztuko ditu beti:

- Guardiako telefono-zenbaki bat eta posta elektronikoko helbide bat, gorabeherei erantzuteko eta horiek konpontzeko.

- Zerbitzua zaintzeko maiztasunak, gehienez ere 48 orduro egin beharko direnak.

• Muntatzeko eta desmuntatzeko zerbitzuaren ondorioz sortzen diren gorabeherei eta jarduketei buruzko txosten-eredu bat, bai eta horiek zuzentzeko eta konpontzeko prozedurei buruzkoa ere.

• Hobekuntzak:

Lizitatzaileek hobekuntzak eskaini ahal izango dituzte, Udalak planoan egindako iradokizunen arabera, eta apaindu eta/edo argiztatu beharreko espazio publiko berrien identifikazioari buruzkoak izango dira soil-soilik.

Eskainitako hobekuntzek kontratuaren prestazioen benetako igoera ekarri beharko dute, eta argiztatu beharreko espazioen kopuruaren gehikuntza baino ez da onartuko hobekuntza gisa, plegu honetan eskatzen den eta planoan jasota dagoen gutxienekoaren aldean.

Eskainitako hobekuntzak ekonomikoki kuantifikatu beharko dira, banaka, merkatuko balio normalekin.

(data, enpresaren zigilua eta baimendutako sinadura)

Ordiziako Udala 2021SCO20001

III. ERANSKINA

LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA

……jaun/andre a, ……NAN duena, bere izenean edo honakoaren ordezkaritzan (lizitatzailea)……, ……IFZ duena

…….. Zenbakidun espedienteko kontratua esleitzeko prozedurari dagokionez,

HONAKO ESKAINTZA AURKEZTEN DUT

APAINGARRIAK FAROLETAN / ADORNOS EN FAROLAS

KALEA *CALLE*	KOPURUA *CANTIDAD*	*MODELO*	UNITATEKO PREZIOA *PRECIO UNITARIO*	GUZTIKO PREZIOA *PRECIO TOTAL*
URDANETA KALEA	4			
JOSEBA REZOLA PASALEKUA	2			
SAN BARTOLOME KALEA	3			
GUDARIEN ETORBIDEA	3			
JOSE MIGEL BARANDIARAN PLAZA	1			
FORU PASEALEKUA	1			
JOSE ARANA KALEA	3			
SANPERIO KALEA	3			
FILIPINAK KALEA	10			
KARRILAZPI KALEA	2			
ZABALA BIDEA	1			
ZEBERIOENEA KALEA	3			
INTXAURZAR KALEA	3			
BIZKAIA PASEALEKUA	5			
GIPUZKOAKO KALEA	5			
SAN IGNAZIO KALEA	2			
NAFARROA ETORBIDEA	6			
INTXAUSTI PLAZA	1			
OIANGUREN BIDEA	3			
ALTAMIRA KALEA	3			
LAZKAOMENDI KALEA	2			
ZUMALAKARREGI ETORBIDEA	2			
OKORRO BIDEA	2			
EUSKAL PILOTA KALEA	3			
ZALDIBI BIDEA	3			

GUZTIRA: 76

APAINGARRIAK KALE ERDIAN / ADORNOS EN MEDIO DE LA

CALLE

KALEA *CALLE*	KOPURUA *CANTIDAD*	MODELO *MODELO*	UNITATEKO PREZIOA *PRECIO UNITARIO*	GUZTIKO PREZIOA *PRECIO TOTAL*
URDANETA KALEA	5			
KALEBERRI	1			
MARBARATZA KALEA	1			
GOIERRI KALEA	2			
ETXEZARRETA KALEA	3			
ANDRE MARI KALEA	6			
KALE NAGUSIA	6			
ELKANO KALEA	1			
DOMINGO GOITIA KALEA	1			
ORDIZIA KALEA	2			
LEGAZPI KALEA	1			
EUSKAL HERRIA KALEA	4			
SANPERIO KALEA	1			
ITURTXO BIDEA	1			
EGUTERA BIDEA	1			

GUZTIRA: 36

APAINGARRIAK ZUHAITZETAN / ADORNOS EN ARBOLES

KALEA *CALLE*	KOPURUA *CANTIDAD*	MODELO *MODELO*	UNITATEKO PREZIOA *PRECIO UNITARIO*	GUZTIKO PREZIOA *PRECIO TOTAL*
JOSEBA REZOLA PASALEKUA	7			
GUDARIEN ETORBIDEA	11			
ARRAMENDI KALEA	4			
TXINDOKI KALEA	1			
GERNIKAKO ARBOLA PASEALEKUA	3			

GUZTIRA: 26

APAINGARRIAK ERAIKINETAN / ADORNOS EN EDIFICIOS

KALEA *CALLE*	KOPURUA *CANTIDAD*	MODELO *MODELO*	UNITATEKO PREZIOA *PRECIO UNITARIO*	GUZTIKO PREZIOA *PRECIO TOTAL*
UDALETXEA	1			
PLAZA NAGUSIA	1			
BARRENA JAUREGIA	1			

GUZTIRA: 3

APAINGARRI SINGULARRAK / ADORNOS SINGULARES

KALEA	KOPURUA	MODELO	UNITATEKO PREZIOA	GUZTIKO PREZIOA

CALLE	*CANTIDAD*	*MODELO*	*PRECIO UNITARIO*	*PRECIO TOTAL*
SAN JOANGO ERROTONDA	1			
GUZTIRA:	**1**			

((data, enpresaren zigilua eta baimendutako sinadura)

Ordiziako Udala 2021SCO20001

IV. E**RANSKINA. ESKAINITAKO HOBEKUNTZAK**.

ESKAINTZA EREDUA. IRIZPIDE OBJEKTIBOAK (EKONOMIKOA IZAN EZIK)

…… jaun/andrea, ……NAN duena, eta helbidea……..…..n duena

Bere izenean.

..…… enpresaren ordezkari gisa, ……IFZ duena, ……..…….. helbide fiskala eta , …… gisa,

…….. kontratua esleitzeko eskatzen diren baldintza eta betekizunen jakitun izanik, kontratua gauzatzeko ardura hartuko du bere gain, adierazitako betekizun eta baldintzei hertsiki lotuta, irizpide objektiboetan honako hobekuntza hauek egiteko:

	Gauzatzeko gehieneko epea	Epearen murrizketa, asteka
INSTALAKUNTZAREN EPEA MURRIZTEA **(x bat ipini)**	Astebete (Instalakuntza gehienez 2021eko abenduaren 8rako ipiniko da.)	
	2 aste (Instalakuntza gehienez 2021eko abenduaren 1erako ipiniko da)	

Adierazi, gehieneko epearen 10 asteekiko zenbat murrizten den diren aste epeak.

		X bat ipini:
PROPOSATUTAKO HOBEKUNTZAK	1.000 eurora arte	
	1.000 eurotik 2.000 eurora	
	2.000 eurotik 3.000 eurora	
	3.000 eurotik gora	

Laukiren bat markatuz gero, adierazi zein den hobekuntza eta hobekuntzaren prezioa:

Laukirik markatu ezean, atal horretan ezer ez dela eskaintzen jasoko da.

(data, enpresaren zigilua eta baimendutako sinadura).

PLIEGO DE CLAUSULAS ADMINISTRATIVAS PARTICULARES QUE HAN DE REGIR EN LA CONTRATACIÓN POR PROCEDIMIENTO ABIERTO SUPER SIMPLIFICADO, DEL SUMINISTRO, EN RÉGIMEN DE ALQUILER, ASÍ COM EN LOS SERVICIOS DE INSTALACIÓN, MONTAJE, MANTENIMIENTO Y DESMONTAJE DEL ALUMBRADO Y ORNAMENTACIÓN NAVIDEÑA 2021-2022 EN EL MUNICIPIO DE ORDIZIA

CLÁUSULA PRIMERA.- REGIMEN JURIDICO.

El presente contrato tiene carácter administrativo, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 25 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de contratos del sector público, por la que se transponen al ordenamiento jurídico español las Directivas del Parlamento Europeo y del Consejo 2014/23/UE y 2014/24/UE, de 26 de febrero de 2014. Las partes quedan sometidas expresamente a lo establecido en este pliego, en la oferta presentada y en el correspondiente pliego de prescripciones técnicas particulares, teniendo todos ellos carácter contractual. La presentación de la oferta supondrá la prueba de conformidad por el adjudicatario.

Para lo no previsto en los pliegos, el contrato se regirá por la LCSP, por el Real Decreto 817/2009, de 8 de mayo, por el que se desarrolla parcialmente la Ley 30/2007, de 30 de octubre, de contratos del sector público, por el Reglamento general de la Ley de contratos de las administraciones públicas, aprobado mediante Real Decreto 1098/2001, de 12 de octubre, en todo lo que no se oponga a la anterior y supletoriamente por las normas estatales sobre contratación que no tengan carácter básico, las restantes normas de derecho administrativo y, en su defecto, las de derecho privado.

CLÁUSULA SEGUNDA.- PROCEDIMIENTO DE ADJUDICACIÓN.

El contrato se adjudicará mediante procedimiento abierto súper simplificado conforme al artículo 159.6 de la LCSP 2017 y se llevará a cabo atendiendo a

Criterios automáticos de adjudicación, de conformidad con lo dispuesto en los artículos 145 y 146 LCSP.

CLAUSULA TERCERA.- OBJETO DEL CONTRATO.

El objeto del contrato al que se refiere el presente pliego consiste en la contratación del suministro, en régimen de alquiler, asi como los servicios de instalación, montaje, mantenimiento y desmontaje de elementos de ornamentación y luminarias navideñas de la campaña 2021-2022 del Municipio de Ordizia.

Este contrato no se fracciona en lotes en base a lo dispuesto en el apartado b) del artículo 99 de la LCSP 2017.

CLÁUSULA CUARTA.- VALOR ESTIMADO DEL CONTRATO.

El valor estimado del contrato, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 101 LCSP 2017, asciende a la cantidad de **VEINTI OCHO MIL NOVECIENTOS VEITICINCO EUROS CON SESENTA Y DOS CENTIMOS DE EURO (28.925,62 €) IVA excluido.**

CLÁUSULA QUINTA.- PRESUPUESTO BASE DE LICITACIÓN

El presupuesto base de licitación que opera como límite máximo de gasto que en virtud del contrato puede comprometer el órgano de contratación competente, incluido el Impuesto sobre el Valor Añadido, asciende a la cantidad de **TREINTA Y CINCO MIL EUROS (35.000 €)**, presupuesto que podrá ser mejorado por los licitadores.

En el precio del contrato se considerarán incluidos todos los factores de valoración, incluidos desplazamientos, gastos de personal, teléfonos, etc., así como cualquier otro gasto que, según los documentos contractuales y la legislación vigente sean de cuenta de la parte adjudicataria.

CLÁUSULA SEXTA.- EXISTENCIA DE CREDITO

